

Bilboko Alde Zaharreko oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorrien baldintzak arautzen dituen ordenantza berriaren aurkako sinadurak biltzea

Hiribilduaren bihotzeko negozioak erregulazioaren aurrean planto egiten ari dira eta akats bat dela uste dute, dagoeneko ukituta dagoen inguruko enpresa-sarearekin amaitu dezakeena.

Orain arte Bilboko Alde Zaharrean garraio-lanak oso baldintza txarretan egiten baziren, araudi-aldaketarekin are okerrera egin du, eta horrek ekarriko ditu hornikuntza txarra, zerbitzu okerragoa eta, ondorioz, lanpostuak galtzea, negozioek ospa egitea... Azken batean, Alde Zaharra merkataritza-gune ez hain erakargarria izatea.

AUPA Euskadi/ Autonomoak Ekintzarako Elkarrekin elkartetik uste dugu hutsegite larria dela Bilboko Udalak Alde Zaharrean ibilgailuen zirkulazioa arautzeko aurkeztu duen aldaketa, Oinezkoen Lehentasunezko Eremuei buruzko Ordenantzaren pean.

Horregatik sinadurak bildu eta alegazioak aurkeztuko ditugu ordenantza horren aurrean, uste baitugu ingurua dinamizatzen lagundu beharrean, Alde Zaharrak pairatzen duen egoera delikatuak sakonduko duela, enpresa-ehunari dagokionez. Izan ere, zoritxarrez, egunetik egunera saltokien pertsiana jaitsiak nagusiago baitira igotakoak

baino.

Gure ustez, honako proposamen hauek lagun dezakete eremu horretako zirkulazioa hobetzen:

1. NEGOZIO-SISTEMA BEREZITUA.

Pertsona, lokal edo negozio bakoitzaren beharra ebaluatzen duen sistema bat aukeratzea, baimenak bereiziz eta, horrela, bakoitzaren beharretara mugatzea lortuz.

2. ZAMALANETARAKO EREMUAK HANDITZEA

Bestalde, ibilgailuen ohiko pasabideetan dauden zamalanetarako eremuak erabiltzea eta zabaltzea planteatzen da. Espazio horiek handitu ahal izango lirateke, beharrezkoa ez den kasuetan oinezkoentzako gunetara sartu beharrik izan ez dezaten. Eremu horiek honako leku hauetan koka daitezke: Areatzan, Erriberan edo Unamunon.

3. ERRIBERAKO MERKATUKO APARKALEKUA/TAKILLAK

Horrez gain, **Erriberako Merkatuan dagoen aparkalekua erabiltzea** planteatzen liteke. Oso eraikin handia da, eta lurpeko aparkaleku honi etekin handiagoa atera dakiokete. Era berean, interesgarria litzateke merkatuan bertan neurri txikiagoko paketeetarako takilla batzuk jartzea, honek Merkatuaren bizitza dinamizatzeaz gain Alde Zaharreko ibilgailuen zirkulazioa arinduko bailuke.

Jarri harremanetan AUPA Euskadi / Autonomoak Ekintzarako Elkarrekin elkartearekin:



infoaupaeuskadi@gmail.com

Ainara 685255249/ Juncal 669465668/ Pilar 661223999